



AGINDUA, INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNENKO SAILBURUARENA, EUSKADIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LURRALDE ARLOKO PLANA BEHIN-BEHINEAN ONARTZEN DUENA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko apirilaren 27ko Aginduaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Arloko Planari, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Onarpen hori 2023ko maiatzaren 10ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Arabako Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta 2023ko maiatzaren 19an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean. Era berean, 2023ko maiatzaren 10ean, *El Correo*, *Deia*, *Noticias de Álava*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Diario Vasco* egunkarietan onarpena argitaratu zen.

Agindu horren arabera, Plana eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa entzunaldi-eta jendaurreko informazio-izapideetan eta lurralde-administrazio publiko interesdun guztiei kontsulta egiteko izapideetan jarri ziren, berrogeita bost egun balioduneko epean, bai eta eragindako administrazio publikoei eta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduran aldeztu aurretik kontsulta egin zitzaien pertsona interesdunei kontsulta egiteko izapideetan ere.

Epe horretan, 4.387 alegazio, ohar eta iradokizun jaso ziren, bai eta kontsulten izapideari emandako erantzunak ere.

Alegazio, ohar eta iradokizun guztiak aztertu dira, bai eta kontsulta-izapide horren erantzunak ere; horri buruzko txostena egin da, eta banan-banan erantzun zaie.

Horren ondorioz, hainbat aldaketa egin dira, bai eta dokumentuan beharrezkoak diren zenbait zuzenketa tekniko ere. Hori guztia agindu honekin batera doan aldaketen eranskinean jasotzen da.

Orain arte egindako izapideak ikusita, eta egin beharreko aldaketa guztiak sartuta, bai eta egin beharreko zuzenketa teknikoak ere, bidezkoa da Energia Berriztagarrien Euskadiko Lurralde Arloko Plan behin-behinean onartzea eta prozedurari jarraipena ematea, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzekoak, 16. artikuluari dagokionez 17. artikuluan xedatzen duen bezala. Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako



Batzordeari eta ingurumen-organoari bidali behar zaie, nahitaezko txostena eta ingurumen-adierazpen estrategikoa egin ditzaten, hurrenez hurren.

Organo honek eskumena du Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Arloko plana behin-behinean onartzeko, Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.3 artikulua eta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 16. artikulua araber.

Ondorioz, aipatutako aurrekariak ikusita, honako hauek

EBATZI DITUT

Lehenengoa.- Energia Berriztagarrien Euskadiko Lurraldearen Arloko Plana behin-behinean onartzea.

Bigarrena.- Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea, hiru hilabeteko epean nahitaezko txostena egin dezan.

Hirugarrena.- Aldi berean, ingurumen-organoari ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzea, bi hilabeteko epean eman dezan.

Agindu honen aurka ezin da errekurtsorik jarri, Energia Berriztagarrien Euskadiko Lurralde Arloko Plana onartzeko prozeduraren barruko izapide-egintza baita.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua,

MIKEL JAUREGI LETEMENDIA

**ERANSKINA, JENDAURREKO INFORMAZIOAREN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI ETA
ERAKUNDE PUBLIKOEI KONTSULTAK EGITEKO IZAPIDEAREN ONDORIOZ ENERGIA
BERRIZTAGARRIEN LURRALDE PLAN SEKTORIALEAN SARTUTAKO ALDAKETEI BURUZKOA**

| 1. DOKUMENTUA - MEMORIA | |
|--|---|
| Dokumentua | Egindako aldaketa |
| 3. LAParen arau esparru eta esparru estrategikoa | LAParen hasierako onarpenaren ondoren onartutako Europako araudia txertatzea. Hasieran onetsitako dokumentuan zerrendatu gabeko LAParen prestaketan aintzat hartutako sektoreko araudia txertatzea (kultura-ondarea, zortasun aeronautikoak, trenbide-sektorea, errepideen arloko plangintza sektorialerako tresnak, bizikleta-bideak). |
| 6.3.1 Energia fotovoltaikoa lurrean | Lurzoru urbanizaezin horren ezaugarri onuragarrienak honako hauek dira: (...) 5 km-tik beherako distantzia lehendik dauden azpiestazioetaraino edo konexio-punturaino: Horrela, sortutako elektrizitatea ebakutzea errazten da eta banaketa elektrikoko azpiegitura berriko tarte handiak eraikitzea saihesten da. Hala ere, konexio-puntua lehendik dagoen azpiestazio bati badagokio, hori azpiestazio bakoitzaren sarbide- eta konexio-ahalmenaren araberakoa izango da. |
| 6.3.3 Etorkizunean gara daitezkeen beste aukera batzuk | Instalazio agroboltaikoak aipatu dira. |
| 12.2.1 Metodologia | Eskala handiko, ertaineko eta txikiko instalazio fotovoltaikoen ezaugarriak aldatzea. Eskala txikiko energia eolikoko instalazioen ezaugarriak aldatzea. |
| 12.2.2 1. fasea: Baztertutako eremuak zehaztea | Ingurune biotikoa irizpidea txertatzea. Fauna. Interes bereziko eremuak, energia eolikoko eta fotovoltaikoko instalazioak baztertzeko irizpide gisa. |
| 12.2.2 1. fasea: Baztertutako eremuak zehaztea. 19 taula. | Herritarren lasaitasuneko eremuak argitzeko lotura erantsi da. |
| 12.2.3 2. fasea: Gaitasunaren graduazioa eremu egokietan | Herritarren lasaitasuneko eremuak argitzeko lotura erantsi da. |
| 12.5.1 Energia eolikoa | Energia eolikoko AKEak mugatzeko hartutako irizpideen garapen handiagoa. |

| | |
|--|---|
| <p>13.1 Araubide orokorra. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak eta energia berriztagarrien instalazioen erabilera espezifikoak</p> | <p>LAetara egokituta ez dauden plangintzak dituzten udalerrietan LAPa aplikatzeko metodologia aldatzea.</p> <p>EAEko Ingurune Fisikoaren Antolamendu Matrizea aldatzea energia berriztagarrietarako, antzemandako akatsak eta kontraesanak zuzenduz.</p> <p>Ingurune Fisikoaren Antolamendu Matrizean sartutako aldaketak testura eramatea.</p> |
| <p>13.2.1.1 Eskala handiko instalazioak ezartzea</p> | <p>Hasieran onetsitako dokumentuan jasotzen ez diren erabilerak gehitzea.</p> <p>Testuan ñabardurak sartzea, hobeto uler daitezten. Eskala handiko AKEak udal hirigintza-plangintzaren bidez mugatzeko aukera kentzea</p> |
| <p>13.2.2 Energia ozeanikoko eta minihidraulikoko instalazioak ezartzeko araubidea</p> | <p>Energia minihidraulikoaren eskusio-eremuen salbuespen gisa, zentral hidroelektrikoak berrindartzeko edo berreskuratzeko aukera, baldin eta, babestutako elementu gisa katalogatuta egon arren, planteatzen den jarduketak haien babesa eragiten duten balioak errespetatzen baditu.</p> |
| <p>14.1.4 Gainerako Lurralde Plan Sektorialekin alderatzea</p> | <p>Nekazaritza eta Basozaintzako LAParen antolamenduaren eta Energia Berriztagarrien LAParen arteko gainjartze-eremuei buruzko idazketa argigarria sartzea.</p> |
| <p>14.1.5 Lurralde Plan Partzialekin alderatzea</p> | <p>Energia Berriztagarrien LAPak LPPen gainetik dituen lehentasunei buruzko idazketa argigarria txertatzea.</p> |
| <p>MEMORIA – ERANSKINA</p> <p>ENERGIA BERRIZTAGARRIKO PROIEKTUAK DISEINATZEKO, GAUZATZEKO ETA USTIATZEKO JARRAIBIDEAK</p> | |
| <p>Memoriari erantsia</p> | <p>Egindako aldaketa</p> |
| <p>1.1.2.6 Instalazioen eta haiei lotutako azpiegituren diseinua</p> | <p>Herritarren lasaitasunerako diseinu-neurri eta -irizpide espezifikoak txertatzea.</p> |
| <p>1.2.1.1.1.1 Instalazioaren konfigurazioa</p> | <p>Instalazioaren eta bizitegi-eraikuntzaren arteko gutxienezko distantzia ezartzea.</p> |
| <p>1.2.1.1.4.1 Ingurumenean integartzeko neurriak</p> | <p>Ebroko Konfederazio Hidrografikoak proposatutako neurriak txertatzea.</p> |
| <p>1.2.3.1.4.1 Ingurumenean integartzeko</p> | <p>Haize-sorgailuek sortutako itzal-orduak minimizatzen bideratutako neurriak txertatzea.</p> |

1. DOKUMENTUA - APLIKATZEKO ARAUAK

| Dokumentua | Egindako aldaketa |
|--|--|
| 1. artikulua | 4. apartatua ezabatzea. |
| 3. artikulua | Definizio berriak sartzea: " <i>Ezarpn zuzeneko instalazioak</i> ", " <i>Parke eolikoak berrindartzea</i> ", " <i>Aldeko baliabide eolikoa</i> ", " <i>Aldeko baliabide fotovoltaikoa</i> ". |
| 4. artikulua | Eranskin berrien zerrenda. |
| 6. artikulua | 4. apartatua, LAGetara egokitu ez diren plangintzak dituzten udalerrietan LAP aplikatzeari buruzkoa, aldatzea. |
| 7. artikulua | Idazketa egokitzea. |
| 8. artikulua | Nekazaritza eta Basozaintzako LAParen antolamenduaren eta Energia Berriztagarrien LAParen arteko gainjartze-eremuei buruzko idazketa argigarria sartzea. Gainjartzea ezarri da Energia Berriztagarrien LAParen eta Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen LAParen artean, baita errepideen arloko lurralde-antolamendurako tresnaren artean ere. |
| 11. artikulua | " <i>Babes berezia</i> ", " <i>Basoa</i> ", " <i>Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala</i> " eta " <i>Azaleko uren babesa</i> " kategorietako erabileren araubidea aldatzea, antzemandako akatsak eta kontraesanak zuzenduz. |
| 12.2 artikulua | Idazketa egokitzea. |
| 13. artikulua | 13. artikulua berri bat sartzea, LAParen eremua afekzio sektorialeko eremuekin gainjartzeari buruzkoa. |
| 13. artikulua eta hurrengoak | Idazketa egokitzea. Artikuluak berriro zenbakitzea, hasieran onetsitako dokumentuan jaso ez diren artikulua gehigarriak sartzeagatik. |
| 14. artikulua (lehengo 13. artikulua) | Eskala handiko, ertaineko eta txikiko instalazio fotovoltaikoen ezaugarriak aldatzea. Eskala txikiko energia eolikoko instalazioen ezaugarriak aldatzea. |
| 15. (lehengo 14. artikulua) | 2. eta 3. paragrafoen idazketa berria. |
| 1.7 artikulua (lehengo 16. artikulua) | Ondoren onartzen den ingurumen-arauditik AKEei aplikatzeko salbuespena kentzea. |

| | |
|--|--|
| 18. artikulua (lehengo 17. artikulua) | 2. eta 3. atalak sartu dira, lurzoruen egokitasunaren graduazioa aldatzeko aukerari buruzkoak. Paragrafo bat gehitu da autokontsumorako instalazio fotovoltaikoen kasuistika argitzeko, lurraldearen gaitasunari dagokionez. |
| 19. artikulua (lehengo 18. artikulua) | 1. eta 8. puntuetan, haize-sorkuntzarako asetahun-indizearen balioa aldatu da. Idazketa berria eman zaio 9. puntuari. |
| 20. artikulua (lehengo 19. artikulua) | 1. paragrafoko bigarren lerrokada aldatzea. 2. atala sartzea, administrazio publikoek autokontsumoa sustatzeari buruzkoa. |
| 21. artikulua (lehengo 20. artikulua) | Hirigintza-plangintzak eskala handiko AKE mugatzeko aukera kentzea. Ingurumen Inpaktuaren Deklaraziotik erator daitezkeen ingurumen-eskakizunetara egokitzeko AKEen aldatetaren idazketa argigarria. Kudeaketa-plana duten flora- eta fauna-espezieak babesteko eskumena duen foru-organoaren txostenaren beharra sartzea. |
| 23. artikulua (lehengo 22. artikulua) | Foru-aldundiek interes publikoko deklarazioaren salbuespena sartzea LAPak mugatutako AKEetan ezarri beharreko instalazioetarako. Obra-lizentziaren eta sektoreko eta ingurumeneko beste baimen batzuen beharrari buruzko azalpena. |
| 24. artikulua (lehengo 23. artikulua) | Hasieran onetsitako dokumentuan jasotzen ez diren erabilerak gehitzea. 4. apartatuaren idazketa argigarria, hobeto uler dadin. |
| 25. artikulua (lehengo 24. artikulua) | Bateragarritze Planei buruzko aipamena kentzea. |
| 26. artikulua (lehengo 25. artikulua) | Bateragarritze Planei buruzko aipamena kentzea. |
| 27. artikulua (lehengo 26. artikulua) | 105/2008 Dekretuaren eta 2/2006 Legearen aipamena. |
| 29. artikulua | 29. artikulua berri bat sartzea, lehendik dauden instalazioak indartzeari buruzkoa. |

| | |
|--|--|
| 30. artikulua (lehengo 28. artikulua) | Antzemandako akatsak eta inkongruentziak konpontzea. |
| 31. artikulua (lehengo 29. artikulua) | Energia minihidraulikoaren eskusio-eremuen salbuespen gisa, zentral hidroelektrikoak berrindartzeko edo berreskuratzeako aukera, baldin eta, babestutako elementu gisa katalogatuta egon arren, planteatzen den jarduketak haien babesa eragiten duten balioak errespetatzen baditu. |
| 35. artikulua | 35. artikulua berri bat sartzea, LAParen betetze eta garapen mailaren jarraipenari buruzkoa. |
| I. Eranskina - Energia berriztagarriak erabiltzeko ingurune fisikoa | EAEko Ingurune Fisikoaren Antolamendu Matrizea aldatzea energia berriztagarrietarako, antzemandako akatsak eta kontraesanak zuzenduz. |
| II. Eranskina - Baztertzeko irizpideak | Ingurune biotikoa irizpidea txertatzea. Fauna. Interes bereziko eremuak, energia eolikoko eta fotovoltaikoko instalazioak baztertzeko irizpide gisa. |
| II. Eranskina - Baztertzeko irizpideak 19 taula | Herritarren lasaitasuneko eremuak argitzeko lotura erantsi da. |
| III. Eranskina - LAPetik aukeratutako kokapen-eremuak dituzten udalerrien zerrenda | Eragindako udalerrien zerrenda aldatzea kartografian sartutako AKEen aldatetara egokitzeko. |
| IV Eranskina - Trenbide-sareko azpiegiturek jasaten duten eragina | IV. eranskina gehitzea, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Trenbide Sarearen Plangintza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiaren txostena betetzeko. |
| V Eranskina – Zortasun aeronautikoen gaineko eraginak | V. eranskina gehitzea, Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txostena betetzeko. |
| VI Eranskina - Lurralde antolamendurako gidalerroei egokitutako plangintza ez duten udalerriei aplikatu beharreko lurzoruaren kategorien baliokidetasunen taula | VI. eranskina gehitzea |
| VII. Eranskina – LAPetik aukeratutako kokapen-eremuak | VII. eranskina gehitzea |

3. DOKUMENTUA - PLANOAK

| |
|--|
| Egindako aldaketa |
| AKE fotovoltaikoen eremutik kanpo uztea etxebizitzak, bizitegi-guneak, hiri-lurzoruak, putzuak eta akats baten ondorioz eremu horretan sartutako beste batzuk. |
| Kultura-ondarearen kartografia eguneratua txertatzea. |
| Kultura-ondarearen kartografia eguneratua txertatzea. Natura-ondarearen kartografia eguneratua txertatzea, hasierako onarpen-dokumentuan kontuan hartu ez diren kiropteroen babeslekuekin, eta ingurumen-gaitasuna berrikustea. Horren ondorioz, energia eolikoko zenbait AKE kentzea (Alonsotegi, Andutz mendia). |
| Energia eolikoko AKEen birmugaketa kartografikoa, poligono gisa mugatuta, eta ez lerro gisa. |
| AKE kodearekin etiketatzea. |
| Salburua KBE/HBBE gisa falta ziren Natura 2000 Sareko zenbait gune bazterketa-eremuen kartografian sartzea. |
| Faunaren Interes Berezikoko Eremuetako salbuespen-eremuak kartografian sartzea. |
| Informazio-plano berriak, hala nola radar meteorologikoak, itsas lehorreko jabari publikoa, trenbideen zortasun akustikoa eta aireko zortasunak. |
| Sentsibilitate eolikoaren plana eguneratzea, kiropteroen babeslekuak barne. |

5. DOKUMENTUA – INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOA

| MEMORIA | |
|---|---|
| Dokumentua | Egindako aldaketa |
| 1.4. Lurralde antolamendu planaren arau esparru eta esparru estrategikoa | LAParen hasierako onespeneren ondoren onartutako Europako araudia txertatzea. Hasiera batean onartutako dokumentuan aipatzen ez den LAParen prestaketan kontuan hartutako araudi sektoriala sartzea (kultura-ondarea, zortasun aeronautikoak, trenbide-sektorea, errepideen eta bizikleta-bideen arloko plangintza sektorialerako tresnak). |
| 1.5.5 Gainerako Lurralde Arloko Planekin alderatzea | Nekazaritza eta Basozaintzako LAParen antolamenduaren eta Energia Berriztagarrien LAParen arteko gainjartze-eremuei buruzko idazketa argigarria sartzea. |
| 1.5.6 Lurralde Plan Partzialekin alderatzea | Energia Berriztagarrien LAPak LPPen gainetik dituen lehentasunei buruzko idazketa argigarria txertatzea. |
| 2.4.1.2 Energia fotovoltaikoa | Instalazio agroboltaikoak aipatu dira. |

| | |
|--|---|
| 2.4.2.2.1 Metodologia | Eskala handiko, ertaineko eta txikiko instalazio fotovoltaikoen ezaugarriak aldatzea. Eskala txikiko energia eolikoko instalazioen ezaugarriak aldatzea. |
| 2.4.2.2.2 1. fasea: Baztertutako eremuak zehaztea | Ingurune biotikoa irizpidea txertatzea. Fauna. Interes bereziko eremuak, energia eolikoko eta fotovoltaikoko instalazioak baztertzeko irizpide gisa. Herritarren lasaitasuneko eremuak argitzeko lotura erantsi da. |
| 2.4.2.5.1 Energia eolikoa | Energia eolikoko AKEak mugatzeko hartutako irizpideen garapen handiagoa. |
| 2.5.1 Araubide orokorra Energia-instalazio berriztagarrien lurralde-antolamendurako eta erabilera espezifikorako gidalerroak | Ingurune fisikoaren antolamendu-matrizea ezabatu da, eta Aplikazio Arauen I. eranskinera igorri da, baita horren azalpena ere. |
| 2.5.2.1.1 Eskala handiko instalazioen ezarpenak | Hasieran onetsitako dokumentuan jasotzen ez diren erabilerak gehitzea. Testuan ñabardurak sartzera, hobeto uler daitezten. Eskala handiko AKEak udal hirigintza-plangintzaren bidez mugatzeko aukera kentzea. |
| 2.5.2.2 Energia ozeanikoko eta minihidraulikoko instalazioak ezartzeko araubidea | Energia minihidraulikoaren eskusio-eremuen salbuespen gisa, zentral hidroelektrikoak berrindartzeko edo berreskuratzeko aukera, baldin eta, babestutako elementu gisa katalogatuta egon arren, planteatzen den jarduketak haien babesa eragiten duten balioak errespetatzen baditu. |
| 5. DOKUMENTUA - III ERANSKINA: LABURPEN EZ-TEKNIKOA | |
| Dokumentua | Egindako aldaketa |
| 2.3.1 Araubide orokorra. Energia-instalazio berriztagarrien lurralde-antolamendurako eta erabilera espezifikorako gidalerroak | Ingurune fisikoaren antolamendu-matrizea ezabatu da, eta aplikazio-arauen I. eranskinera jo da. |

7. DOKUMENTUA - NEKAZARITZA-SEKTOREAN GAINKO ERAGINAREN PROTOKOLOA (NGEP)

7. dokumentua erantsi da

Nekazaritza-sektorean gaineko eraginaren protokoloa

7. dokumentua - *Nekazaritza-sektorean gaineko eraginaren protokoloa* (NGEP) eta bere mapak erantsi dira.